

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera eramateko eta Onan Low Cost enpresaren egokitasuna ziurtatzeko, funtsezkoak diren hainbat jarduera burutu behar ditugu.

- **Produktuen aukeraketa eta erosketa**


Hasteko, jarduera oso inportantea izango da produktuaren aukeraketa eta erosketa egokia egitea. Gure saltokian kalitate handiko produktuak saltzen saiatzen gara, baina beti ahalik eta prezio merkeenean, bezero guztiek gure produktuak erosteko gai izateko. Hau dela eta, produktu egokiak aukeratzea gauzarik garrantzitsuenetako bat da bezeroen nahiak aztertuz.



Hau esanda, prozesu zehatz baten bidez aukeratu ditugun produktuak erosten ditugu kantitate handietan, gero gure saltokian saltzeko. Honetik abiatuta, aztertzen dugu gehien saldu diren produktuak zeintzuk diren, eta hurrengo erosketan antzeko produktuak ekartzen ditugu gure bazkideen nahiak asetzeko.

- **Negozia ezagutzera eman**

Beste jarduera oso garrantzitsua gure negozioa ezagutzera ematea da. Saltokia Leioan kokatuta dagoenez, behar-beharrezkoa izango da Leioako edota inguruko biztanleek Onan Low Cost enpresa ezagutzea. Horrela, bazkide berriak lortuko ditugu eta proiektua arrakastatsua izango da.



Hau lortzeko hainbat teknika erabiltzen ditugu. Hoberen datorkiguna sare sozialetan enpresa promozionatzea da. Hainbat plataformetan gaude eta hauetan gure katalogoa igoko dugu, nobedadeen berri emango dugu... horrela aktiboki gure negozioa ezagutzera emateko. Instagramen oso aktiboak gara, baina Tik Tok eta beste batzuk ere badauzkagu.

- **Kudeaketa ekonomikoa: kostuen eta diru sarreren kontrola**

Kudeaketa ekonomiko on bat egitea oso garrantzitsua izango da behin eta enpresa sortuta egonda. Kostu eta diru sarreren ohiko kontrola eginez, proiektua aurrera eramatea errazagoa izango da. Horretarako, enpresaren kostu eta diru sarrera guztiak aztertu eta optimizatuko ditugu.

Administrazio espezialista batek, kasu honetan Olatzek, kostu eta sarreren kontrola eramango du, eta kudeaketa ekonomikoaz enkargatuko da.